

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1995eko urriak 26 • 85.zka. •



■ J.J. Olabe Zuazua


■ Domu Santu Eguna

■ Kirolak: Fernando Uribesalgo

■ Erleen bizitza ezkutua

ARETXABALETAN, ZURE ORDUTEGIRA EGOKITZEN DEN
GIDARI ESKOLA BARRIA:

LARRINGAN



Informa zaituz
konpromezurik gabe:



Basabe poligonoa F-0-7 • Tfnoa. 79 64 50

ZAPATUETAN

ZAPATUETAN


INGLESA ETA ALEMANA

KLASEAK HASTEKO DAUDE!

EZ BAZARA APUNTATU
ORAIN DUZU AUKERA

Zapatuetan Zapatuetan Zapatuetan Zapatuetan

9,30etatik 12,30etara 9,30etatik 12,30etara 9,30etatik 12,30etara



Araba Etorbidea, 4
Arrasate

Tfnoa: 79 01 32
79 65 54

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA


- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43



Domu Santu egunean kanposantura joateko ohitura baduzu?

*Julian Aranzabal
(Jubilatua)*

Egun horretan gustetan zait kanposantura joatea. Lorak eramateari ez diot garrantzirik ematen. Lorak baino garrantzi haundiagoa ematen diot errezuari.



*Jose Ignacio Rodriguez
(Langabetua)*

Ez daukat kanposantura joateko ohiturarik. Gainera ez dut inor Atxabaltako kanposantuan.



*Fermina Goiarrola
(Etxeqoandrea)*

Bai joateko ohitura badaukat eta lorak eramaten ditut. Loratan asko gastetan dela uste dut. Domu Santu eguna nahiko tristea izaten dela uste dut.



*Enriketa Sanz
(Jubilatua)*

Bai, badaukat joateko ohiturarik. Orain ez daukat inor Aretxabaletako kanposantuan, hala ta be joaten naiz buelta bat ematera.



*Itziar Zubizarreta
(Etxeqoandrea)*

Bai, egun horretan joaten naiz kanposantura baina Arrasatekora joaten naiz.



*Ana Hidalgo
(Etxeqoandrea)*

Bai, joaten naiz. Lorak eramateko ohitura dut baina uste dut gehiegi gastatzen dela loratan.



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Juan Jose Olabek Venezuelatik bidalitako eskutitz goxoa

J.J. Olabe Zuazua atxabaltarra, 19 urte zituela, Loiolara joan zen bere jesuita ikasketak egitera. Urte bete beranduago, 1949an, Ameriketara bidali zuten. Venezuelan eta Colombian Magisteritza eta Filosofia ikasi ondoren, Kansas City-ra joan zen Teologia ikasten; eta bertan eman zuen bere lehen meza. Herri eta familiaren aurrean 1962. urtean eman zuen Atxabaltan lehen meza. Ordutik hona Venezuela-ko parrokia pobreetan lana egin du (Maracaibo eta Cumanán), eta azken urteotan Barquisimeto-n dihardu lanean, Jesus Lagundiko jende berria hezitzen. Hona hemen bere herri eta Aretxagazetari buruzko gogoetak.



J.J. Olabe Zuazua, Barquisimeto-n 1994. urteko ikasleekin

1995eko iraila

Aretxagazetako atxabaltar maiteok, Kaixo! eta alde zuzenetik agur bero bat gure aldizkari honetan egindako lanagatik.

Amerikar filosofo batek dioenez hiru AHOTSEK apur dezakete Gizakiaren ixiltasuna: Poesiaren ahotsak, musikarenak eta Maitasunaren ahotsak.

Hotsak entzun nituen mendi-lepoetan, eta pinudietan zurrumurrak; mendi eta bailaratan irrintziak, baina ez Loramendi poetaren ahotsaren bestekoa: hain ahots mistiko eta askatzailea, serafinen antzeko poesia apalaz, gizakiaren sakontasuna adierazten duena; baserriarekiko joera dituzten bertso sarkor betegarriak, bertako ogi eta iriaren usainak dakarzkiguna.

Atxabaltako kale zaratsuetako hotsak entzun nituen, baina arpejioz jositako indar paregabe bat bezala, argi iturri bat agertu zen neure ametsetan: Demetrio Jaunaren txistuak doinu alai bihurtutako pentagrama zen; Barandik zuzendutako andra-gizonen ahotsen musika eta abestiak ziren eta kantuen oihartzunek Leintz Bailarako inguru guztiak betetzen zituzten. Asis-eko beste seme baten musika ere ba zen; oraingoan Aita Arruerena. "Txindurri" haundiaren ahots indartsua zen; hau ere nire herriko semea.

Poeta ez naizenez, eta musiko ere ez, ezin dut nire herria eta nire herrikoak, ez bertsoz ezta musikaz goraiatu. Ahots bakar bat dut, bihotzarena ahotsa, eta berarekin nire txokoarekiko maitasuna adierazi nahi dut; horregatik Atxabaltako herria zoriondu nahi dut bere Aretxagazetagatik.


1992ko martxoan Aretxagazeta kalera atera zen lehen aldiz, eta une berean bere herriaren bihotzeko goxotasuna nabaritu zuen... harrezkero paregabeko argi eta bizitasuna eman digu.

Atxabaltak derrigorrez behar zuen Aretxagazeta bat bere herritarrentzat; herrian dauden egitasmok eta arazoak, kultura egarri eta proiektuak, baliabideak, sufrimenduak, lehengo eta gaurko historiak, lan eta festak... Atxabaltako semei aldarrikatzeko. Gaur zera esan dezakegu, Aretxagazetari esker gure txoko eta herriko gertakizunengandik hurbil egon gaitezkeela, oso urruti bizi arren.

Aretxagazetan lan egiten eta dihardutenei nire eskerrik beroenak, eta era berean atxabaltar guztiei nire/gure herriaren alde egiten dutenagatik.

Bihoakizue nire oroitzapen, esker eta ZORIONIK beroenak.

Adeitasunez, atxabaltar batek.



J.J. Olabe Zuazua

Juan Jose Olabe Zuazua S.J.




Domu Santu Eguna

Datorren azaroaren 1ean, Domu Santu eguna ospatuko da. Ohitura den moduan, jendea kanposantura joaten da egun honetan, hildakoez akordatzera eta haien alde otoitz bat egitera.

Familikoei lorak eroatea ohitura da eta horregatik egun honetan kanposantua bisitatzera joango zaretenok txukun eta polita aurkituko duzue.

Santakurtz kalean aldaketak



Kurtzebarri eskolak eskatuta, eta umeen babes helburu izanik zenbait aldaketa egin dira Kurtzebarri eskolako bidezatian. Alde batetik, gaur egun dagoen itxitura kendu egin da eta lehen baino gorago jarri, mapan ageri den lekuan. Itxidura hau eskola orduetan bakarrik jartzen diren posteen bidez egiten da.

Bestetik, debekatutako norabidea adierazten duen ikur bat jarri da mapan ageri den tokian. Horrela Santakurtz kaleak, Kurtzebarri eskola dagoen zatian norabide bakarra du. Trafikoa Arrasate aldera bakarrik izango da baina hori bai eskolorduetatik kanpoko orduetan bakarrik. Eskolorduetan Kurtzebarri eskola aurrekaldeko bidezatian ez da trafikorik izango.

BEIRALAN

KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

Berrikuntzak

MODAN DAGOEN GUZTIA
Iparagirre, 4 Tfnoa.79 21 24

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA

“ARINSA”

Basabe Poligonoa “EO-10”
Telefonia: 79 62 80
ARETXABALETA (GIPUZKOA)

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

BITXITEGIA

MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

MATIKUA

Taberna

Aozaratza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA

MAPFRE

Aseguroak
Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

Cerrajera Valle de Lenizeko langileek bukatu dute greba



Urriaren 9an greba hasi zuten Cerrajera Valle de Lenizeko langileek

Urriaren 9an lana egiteari utzi eta greba hasi zuten C.V.L.ko langile gehienek. Grebaren arrazoia, 1995erako soldata igoeraren, langile eta zuzendaritzaren arteko ezadostasunean zegoen. Zuzendaritzak % 3ko soldata igoera eskaintzen zuen eta langileek % 4,5ko igoera eskatzen zuten.

Greba hasi zutenetik, langileek idatzitako hainbat kartel eta komunikatu irakurri zitezkeen kalean euren arazoa salatuz eta herritarrak sensibilizatu guran.

Orain barriz, greba hasi zenetik 17 egun pasatu direnean negoziaketa batetara iritsi dira Donostiako PRECO zerbitzuaren bidez. PRECO, arazoak konpontzeko ezarritako zerbitzua da. Negoziaketa honetan hainbat aspektu konpondu dituzte, soldatari dagokionez % 4,3ko igoera onartuz.

Horrela urriaren 26an hasteko dira lanean bertako langileak.

Liburutegiko liburu barrien zerrenda

Liburutegiak liburu barriak erosi ditu. Hemendik aurrera liburutegira liburu barriak heltzen direnean hemen argitaratuko ditugu zuek liburu hoiien barri izan dezazuen. Liburu barrien zerrenda hauxe da:

Literatura:

- Raro / Benjamin Prado
- La isla del día de antes / Umberto Eco
- La señorita Smila / Peter Hoeg
- Un zoológico en mi azotea / Gerald Durrell
- La presa / Kenzaburo Oé
- Alas para vivir / Richard Bach
- Eztia eta ozpina / Patxi Zubizarreta
- Olerkiak / Loramendi

Kontsulta liburuak:

- Breve historia de España / F. Garcia de Cortazar
 - La Cerámica / Quim Chavarría
 - Manual para una economía ecológica / Roberto Bermejo
 - La práctica del horticultor autosuficiente / John Seymour
 - El cultivo de hortalizas / John Seymour
 - La conservación de alimentos y productos artesanales / John Seymour
 - Arrauna Euskal Herrian / Manu Etxebarria
- Liburutegia astelehenetik eguakotxera bitartean zabalik egoten da, goizez 11etatik ordu 1etara eta arratsaldeaz 5etatik 8etara. Orain gainera komiki apal barri bat ere jarri da.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

Pekineko konferentzien inguruko hitzaldia

LORAMENDIko Tril emakume taldeak bi hitzaldi antolatu ditu. Lehena naturismoari buruzkoa izango da eta urriaren 27an emango da. Bigarrena barriz, Txinako emakumeari buruzko konferentzian berba egin zenari buruzkoa da. Bigarren honetan Amaia Zabaleta bergararra, izango da hizlaria.

Amaia, Pekinen egon zen Euskal Herriko beste 40 emakumeekin batera. Organizazio Ez Gubernametaletako kongresuetan parte hartu zuen. Azken hauek abuztuaren 30etik irailaren 8ra bitartean ospatu ziren. EHNEko EBEL, Baserriko Emakumeen Elkarteko ordezkari moduan joan zen, Emakundetik dirulaguntza jaso ondoren.

Bertan bizitako esperientzia kontatuko du Arantxak, zelan joan ziren, bertako antolakuntza, eta beste mila istorio.

Oso esperientzia polita moduan deskribatu du, "KILOMETROAK jaiko montajea antzerakoa da. 30.000 mila emakume inguru joan ginen munduko 200 herrialde desberdinetatik. Edozeinek berba egiten zenuen, eta oso giro ona egon zen. Goizeko 9etan esaterako, 100 hitzaldi desberdin zeuden eta bakoitzak gehien interesatzen zizaiona aukeratu behar zuen".


Pekineko kongresu hau historian egin den 4. da. Besteak, Copenhaguen, Mexikon eta Nairobin izan ziren. Arantxak esan digunez hurrengoa Australian



Pekineko emakumeen kongresuko hainbat istorio kontatuko dira hitzaldian

egingo da seguruenik, hau da gel-ditzen den kontinente bakarra eta.

Gai interesgarria beraz, Arantxak azaroaren 10ean kontatzeko duena. Loramendiko lokalean izango da arratsaldeko 7,30etan.




Bitxikeria

Benetan bitxia da honako mapa honi gertatzen zaiona. Itxura denez mapa egin zuenari ahaztu egin zizaion mapan Arrasate herria jartzea. Leintz Bailaratik Aretxabaleta bakarrik agertzen da.

Gainera mapa hau erosi zuenak Arrasaten bertan erosi zuen. Hau da hau izeteko...


□ Zaraia M. T.ak joan zen domekan "Mendia berez garbia" eguna ospatu zuen. 27 bat lagun aritu ziren Kurtzebarriko inguruak garbitzen, Peña-kulo, Elizabarri, Leizargarate, Elorretako Haitza, e.a. Zakar asko bildu zuten eta zuzen-zuzenean Arrasateko zabortegira eramán zituzten.



ARGÍ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



EGUZKIGRAF

Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41



**AITZIBER
NIÑO**

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

**Maritxu
Mertzeria**

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

LASAAGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA


OSKAR

HARATEGIA

Loramendi,1
☎ 79 71 69



ADANEK EZ DU LUCY MAITE



"Gizonaren eboluzioa...
eta emakumearena".
Bertan ikus ditzakegu
Australopithecus-a, *Homo*
habilis-a, *Homo erectus-a*,
Neanderthaleko gizona
eta *Cro-Magnonekoa*

Beti esan digute, historiako lehenengo gizakia Adan izan zela, eta Adanen saihetsa erabiliz, Jaungoikoak Eba sortu zuela. Hori diozku behintzat Eliza Katolikoak.

Baina Zientzia ez dago horrekin ados. Bere esanetan, inoiz aurkitu izan den giza-eskeleturik zaharrena "Lucy"-rena da. Emakume afrikar hau *Australopithecus* generoko gizakia da eta Tanzanian bizi izan zen duela 4,8 milioi urte inguru.

Hominidoak: Tximuetatik gizaki modernorainoko zubia

Tximuek, gaur egun ezagutzen dugun gizakia bihurtu arte, hainbat aldaketa jasan zituen gradualki. Postura bertikala, garezurraren garapena, lanabesak egiteko gaitasuna eta beste zenbait ezaugarri, ia bost milioi urtetako eboluzioaren ondorio dira. Bide luze honetan existitu izan ziren gizakiei "hominido" (gizonaren antzeko) deitu zaie.

Esan bezala, *Australopithecus*-ek eman zioten hasiera prozesu honi. 1,20 m-tako altuera zuten gaurko pigmeoen antz haundia zuten, betiere tximu itxura nabarmenagoarekin.

Hauek ere noizbait eboluzionatu egin zuten eta horrela *Homo* generoa azaldu zen. Genero honen barnean hainbat espezie bizi izan ziren, hain zuzen

ere orain kronologikoki aipatutako ditudanak:


Primitiboena (*Australopithecus*-en ondorengo zuzena) *Homo habilis*-a da. Hominido goiztiar honen ezaugarri nagusia lanabesak lantzeko habilitadea zen. Denbora aurrera zihoala postura bertikala lortu zuen hominido berria sortu zen: *Homo erectus-a*

Honek ere eboluzio berri bat jasan zuen eta halako batean *Homo sapiens* arkaikoa azaldu zen Afrikaren iparraldean. Garai horretan Europan klima epeldu egin zen eta *Homo sapiens* batzuek Mediterranean itsasoa gurutzatu eta gure kontinentean hominido arraza berria sortu zuten *Homo sapiens neanderthalensis* (Neanderthaleko gizona) hain zuzen ere.

Gizaki modernoa

Afrikar gelditu ziren *Homo sapiens* arkaikoen berriz *Homo sapiens sapiens*-era (Cro Magnon) eboluzionatu zuten duela 40.000 urte. Laster nagusitu ziren Cro-Magnonak beste hominido guztien aurrean eta Mundu osora zabaldu ziren. Arrakasta, beren kultura aurreratuak ekarri zien, izan ere hizkuntza izugarri garatu zuten, eta honetaz gain jerarkia soziala eta artea ere oso eboluzionatuak baitzituzten.

 Mikel Arroiabe



LOGOPEDIA
ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK


HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kanto, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

T
X
i
L
A
R
R
A



ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETIA

FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko

Biona

Pentsuen Banatzailea

Laborantza tresnak

Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
☎ 79 48 77 ARRASATE

Arantxa Marrodan: "Etxeko lora asko larregi urreztatzeagatik hondatzen da"

Domu Santu eguna azaroaren 1ean ospatzen da. Egun honetarako hainbat enkargu izango dituzte lora saltzaileek. Arantxa Marrodan Nerian loradendakoak esan digunez lan gehien izaten duten sasoiak da hau. "Egun honetarako modu desberdinetako lora erramuak egiten dira. Prezioek igo egiten dute eta bezeroak gastatu gura duenaren arabera egiten dira enkarguak". Garai honekin batera, San Balentin eguna, eta Amaren eguna dira lan gehien izaten diren egunak.

Erramutarako mota askotako lorak erabiltzen dira, Klabelina, Larrosa, Irisa, Gerbera, e.a.

Erregalutarako barriz, larrosa asko erabiltzen da, baina oso garestia da. Dozena bat larrosak esaterako 4.500 pezeta balio ditu eta larrosa bakarrak, hau da, preparatuta etortzen denak 600 pezeta. "Mutil asko etortzen da larrosak erostera baina dendatik urten baino lehenago papelean batzea gura izaten dute horrela inork ez ikusteko" baieztatu du Arantxak.

Entierroetako koroietakoa armazioa klabelekin egiten da normalean, baina beste lora batzuk ere sartu daitezke. Koroiak, erramuak eta bestelako lanak dendan egiten dituzte.

Arantxa Marrodan Gasteizekoa da baina azken 19 urteotan Aretxabaletan bizi da. Lorak betidanik gustatu izan zaizkio eta poliki-poliki hauen inguruko sekretu asko ezagutzera heldu da.



Loreen eta landareen inguruko kontu gehiago ere galdetu dizkiogu Arantxari. Etxe gehienetan loraren bat izango da seguruasko baina askotan ez ditugu behar moduan zaintzen eta hondatu egiten zaizkigu. Hara ze esan digun Arantxak honen inguruan: "normalean etxeko lorak ur gehiegi botatzeagatik hondatzen dira. Azaleko lurra berehala lehortzen da baina hatzamarra barrura sartzen badugu lurra buztita dagoela konturatuko gara. Ura botatzerako orduan konstanteak izan behar gara. Gutxigorabehera astean behin botata nahikoa da. Hori bai, udan neguan baino ur gehiago behar izaten dute".

Bestetik, kanpoan moztu eta etxean uretan ipinitako lorak ere askotan edukitzen ditugu. Kasu honetarako hara ze aholku eman digun: "kirtena moztuta duten lora edo landareetan ura askotan aldatzea komeni da. Poliki-poliki eta zati txikitik kirtena mozten joatea ere ona da. Normalean lora freskoa bada 10 bat egunetako iraupena izaten du".

Loren inguruko aholku batzuk hemen dituzue. Egia esan loreek ingurua asko alaitzen dute eta ez dute horrenbeste lan ematen.

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



IBARRA

ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

AMETS TABERNA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta



FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

KELER



El León

Industrialdean
Tfnoa: 79 60 65

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

INDUSTRIALDEA MEDIKU-ZENTROA

Luis Orriño
Medikua
Zaraita
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea
Pabelloi F-O b
79 06 82
ARETXABALETA

Erlak, langile finak

Erlak egiten duten elikagai goxoa jasotzeko garaia da udazkena. Udaberriarekin batera ezti sasoi oparoa dugu. Udaberrian eta udan loraz-lora ibili ostean euren elikagairako, produzitzen dute erlak ezti. Hala ta be, gizakiok intsektu hauen janariaz elikatzen aspaldi ikasi genuen.

Animalia adimentsu hauek ezagutzen dituen atxabaltar bat Carlos Bengoa da. Erla mundua urteetan ondo-ondotxotik bizi izan du eta berarengana jo dugu animalia hauetaz zeozer gehiago jakiteko.

Carlos Bengoa, jaiotzez otxandiotarra dugu, baina aspaldiko urteetan Aretxabaletan bizi da. Otxandion, aitajauna erlazaina zuen eta aita ere bai. Eurengandik hartu zuen erleekiko afizioa. Orain dela 16 bat urte Otxandiotik Atxabaltara ekarri zituen erleak.

Ordutik 30 erlauntza ditu Carlosek Aretxabaletan, batzuk Larrinon, eta Urkulu urtegiko inguruetan beste batzuk.

Makina bat liburu irakurritakoa da intsektu hauen inguruan, euren ezkutuko bizitza ondo ezagutzera heldu den arte.

Eztia eta ziztada

Erlea eztiarekin eta ziztadarekin erlazonatzen da beti. Ezkutukoa da erleen bizitza eta ezkutaturik gordetzen dute erleek beren



Erlauntzarekin lan egiteko kea beharrezkoa da

sekretua inguratzen dena ziztatuz. Eztia ez da guretzat egina, eurentzako negurako erretserba besterik ez da. Erleak defentsa propioa du kanpotik ezti kentzen etortzen zaien hoiendako eta azken finean dabilenak jasaten ditu ziztadak. Carlos ziztada asko hartutakoa da, "erleak ez du inor ezagutzen, ezta egunero euren inguruan dabilena ere, ez dute erlazinarekin kupidarik". Behin erleak ziztatuz gero, lehenbailehen eztena larruazaletik kentzea da onena. Behin ziztada egin ostean erlea hil egingo da.

Erregina guztien ama

Erlea ondotik ezagutu beharra dago animalia argia eta fina dela ikusteko. Kolonietan bizi diren intsektuak dira. Kolonia hauetan erregina, erla langileak eta zanganoak (erla arra) daude. Erregina eme emankor bakarra da, eta erlauntza bakoitzean bat bakarra

egoten da. Carlosek berehala desberdintzen dela dio, "beste erlak baino haundiagoa da eta bere inguruan beti ibiltzen dira hiru lau bat zaintzaile".

Erregina da erlauntzako arrautza guztiak egiten dituen. Bere bizitza osoan 500.000 arrautza inguru egitera heldu daiteke. Uda aldean sasoi onenean dagoenean, eguneko 2000 arrautza inguru errun ditzake. Erregina, zanganoek ernaltzen dute jaio eta egun gutxi barru. 15 egun behar ditu jaiotzeko eta jalea erreala ematen zaio, gero bost urte inguru biziko da. Erla langileak barriz, arrautzak jarri eta 21 egunetara jaiotzen dira eta 40 egun inguruko bizia izaten dute.

Negu aldera janaria gutxitu egiten da eta zanganoak erlauntzatik bidaliak izaten dira eta itzultzen ahalegintzen badira hil egiten dituzte. Horrela, 70.000 mila erla izatetik neguan 10.000


erla izatera iritsiko da erlauntza. Neguan erla arrik ez da geldituko erlauntzan. Erleen artean zanga-noek nagi fama dute, "langile" izatea ohore da baina delitua alperra izatea. Ondorengo bertsoak argi erakusten du goian esandakoa:

**Erleak ere udan kanpotik
etxera eramaten du
harek badaki bere burua
neguan zela mantendu.
Ez dio inori ezer ostutzen
berak egina jaten du
langile danak elkar hartuta
alperra ito eta kendu.**

Kolonia batetan bizi da erlea eta beren aktibitatea ondo baino hobeto antolatuta dute. "Imaginatuz 70.000 erla dituen erlauntzia -dio Carlosek- erla bakoitzak bere lana du, batzuk enterradoreak dira, erla bat hiltzen denean erlauntzatik 200 bat metrotara eramana izaten da, dena txukun eta garbi utziz. Beste batzuk larbak zaindu eta elikatzeaz arduratzen dira; argizarizko panelak eta zuloak egiteaz beste batzuk, polena pilatzeaz ura ekartzeaz, e.a. horrela bakoitzak bere lana du".

Erlea intsektu argia

Erlea zelako intsektua den galdetu diogu Carlosi eta ez du zalantzarik izan animalia argia dela esateko. "Niretzako erlea dagoen intsekturik argiena da. Komunikatzeko esaterako, ahalmen haundia du. Ezti ondar bat edo lora goxo bat topatzen badute, denbora apur batera milaka erla inguratuko dira. Kilo bat ezti egiteko 7 edo 8 milioi loren nektarra behar du erleak. Edo beste modu batera esateko, munduari 4 bider eman beharko lioke buelta nektar guzti hau hartzeko. Erlea batek 600 -700 lora polinizatu ditzake orduko. Usaimena ere ona ei dute, 600 bat metrotara hartzen dute goxo



Ezkerraldean panel naturala, eskuman barriz artifiziala

***"Eztia egitea
baino garrantzi-
tsuagoa da erlak
loratan eta inguruko
landaretzan egiten
duten polinizazioa,
modu honetan
landaretza gehituz"***

usaina eta. Garbitasuna eta ordena ere oso ondo zaintzen dituzte, ezti eta larbak jartzen diren panelak argizariz egiten ditu erleak. Panel hauek dituzten exagonoak perfektuak dira eta panel batetik bestera uzten duten aldea beti exaktua izaten da, 8 mmtakoa.

Lora desberdinak sasoiaren arabera sailkatu egiten ditu erleak, horrela lora batekin espezializatuz. Udaberri hasieran esaterako sahasa polinizatzen du, gero beste lora batzuekin jarraitzeko. Milaka buelta emango ditu erleak loretara. Loren nektarra hartu estomagoan transformazio bat egin eta ezti sortzen dute horrela. Batzutan larbendako janari gisa erabiliko dute eta beste batzuetan ezti egiteko.


Hemendik aurrera loraz-lora ikusten duzuen erleaz edo eurek produzitutako ezti azalduko gehiago jakingo duzue. Benetan mundu bitxia da erleena, hemen esandakoa erleen bizitzari buruzko pasarte txiki bat besterik ez da. Dena esaten hasi ezkerro lekurik ez genduke izango.

Gizakiok badaukagu zer ikasi animalia hauengandik, egia esan, erlearen antolakuntza sistema gizakiak askotan erabili izan du.

Hori bai, ez zirrik egin hurbiltzen zaizuen erleari. Inguratu ezkerro bakean uztea onena.



Erleak loren nektarrarekin sortzen du ezti



Abdel Mayid marrokiarrak irabazi zuen J.R. Arana Memoriala

Giro polita egon zen joan zen domekan Juan Ramon Aranaren omenez egon zen lasterketan. Guztira 112 korrikalarik parte hartu zuten.

11etan hasita, kategorien arabera lasterketa desberdinak egon ziren. Senior mailan partizipazio maila altua izan zen, 74 gizonezko eta 13 emakumezko. Gizonezkoetan korrikalari garrantzitsuak ikusteko aukera izan genuen. Azken hauek ia 8 Kmtako ainiketaldia egin behar izan zuten eta honela helmugaratu ziren lehenengo 10ak: 1goa: Abdel Mayid, marrokiarra, 21' 33"tako denbora eginez; 2. Antonio Merino (Antzuola); 3. Carlos Ayala (Mexiko); 4. Pello Garin (Zizurkil); 5. Cesar Perez, mexikarra; 6. Ramon Jausoro, atxabaltarra, (minutu batera sartu zen); 7. Manu Hurtado (Beasain); 8. Alberto Rebuelta (Elgoibar); 9. Fenassi Driss marrokiarra; 10. Roberto Ruiz (Gasteiz). Lasterketa honetan 13 beterano izan genituen eta hona hemen lehenengo hirurak: 1goa Francisco Andres arrasatearra, 2. Felix Migel (Berriz); 3. Jose Galan (Arrasate). Kadeteetan: 1goa. Igor Dublan atxabaltarra izan zen; 2. Calos Aldai (Bergara); 3. Ion Calzon (Eskoriatza). Junior mailan, 1goa. Jose Antonio Ruiz elgoibartarra; 2. Arkaitz Letamendi (Oñati); 3. Jonatan Felipe (Zamudio). Lehenengo atxabaltarra Dabid Perez izan zen.

Emakumezkoetan barriz, 17 partehartzaile izan ziren. Seniorretan hauek izan ziren 5 lehenak: 1goa, Nieves Zarza (Gasteiz); 2. Angelica Manrique; 3. Ma Teresa Ruiz Monasterio (Santurtzi); 4. Ma Jose Arteaga (Lasarte); 5. Camila Bravo (Santurtzi). Beteranoetan barriz, 1goa. Ma Jose Gil (Arrasate); 2. Ma Eugenia Gonzalez (Elgoibar); 3. Pilar Lama (Elgoibar). Junior mailan partehartzaile bakarra izan zen, Nagore Basterra ondarrutarra. Eta emakumezko kadeteetan, 1goa. Sara Rodriges (Azpeiti); 2. M Carmen Seijas (Deba); 3. Ihintz arrasatearra. Lasterketan ez zen emakume atxabaltarik izan.

Nagusietan partehartzaile asko izan baziren ere, gatzetxoetan ez zen hala izan. Gazte gutxik parte hartu zuten.



Hona hemen senior kategorian klasifikatu ziren lehen 10ak. Erdian goian, Abdel Mayid marrokiarra. Ezker ezkerrean Ramon Jausoro atxabaltarra, 6. postuan sartu zena.



Kadeteetan Igor Dublan atxabaltarra nagusitu zen. Ezkerretik hasita, Carlos Aldai bergararra, Igor Dublan eta Jon Calzon eskoriatzarra.

IMANOL JANARI DENDA


Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

Fernando Uribesalgo, Felix eta Alberto bere lehengusuekin batera egon da Nepal aldean. Hasiara batetan espedizioko beste bat moduan joan zen, ahal bazuen behintzat mendiren bat igotzeko asmoarekin. Azkenean ez zuen bere helburua lortu, Lhotse igotzen saiatu zen baina ondo aurkitzen ez zela eta atzera bueltatu beharra izan zuen. Alde batetik penaz bueltatu da, aukera izan eta mendirik ez duelako igotzerik lortu. Bestetik pozik, bere lehengusuek bi mendiok zapaldu dituztelako.



Fernando Uribesalgo eskumako argazkian eta Lhotse media ezkerrean

• Ze asmorekin joan zinen Lhotse eta Cho Oyu-ra?

Espedizioko beste bat moduan joan nintzen, trekking egin, aklimatatu eta ahal banuen mendiren bat igotzera. Ez nintzen lan kokreturik egiteko joan, gero egin behar zena egin dut. Cho Oyu mendia ez nuen begi onetik ikusi eta kanpo basean gelditu nintzen. Gero irratiko lana neuk eraman nuen aurrera. Lhotse mendia igotzeko asmoa nuen, bigarren kanpamendurarte igo nuen lehengusuekin baina ez nintzen batere ondo aurkitzen eta barriz ere buelta eman nuen kanpo basera.

• Ze egiten zenuen kanpo Basean?

Cho Oyu-ko kanpo basean lau egunetan bakarrik egon ginen sukaldaria eta biok; keinuz komunikatzen ginen nik inglesik ez dakit eta. Goizean 9,30ak inguruan jaikitzen nintzen. Ordurako arroza preparatuta izaten nuen. Gero te edo kafea preparatzen nuen. Ostean goiko notizien zain egoten nintzen. Komunikatzeko ordu batzuk ipinita genituen. Eta beste eguneko ordu guztietan, sukaldaria esaterako esterilan etzan eta eguzkia hartzen egoten zen. Nik diarioan idazten nuen, irakurri, musika entzun, e.a. Harri tontor baten gainean jarri eta

paisajea begira pasatzen zitzaidan denbora.

• Bertako serpek garraiatzen duten kargaz ze esango zenuke?

Egia esan, gogorra da serpak horrelako kargekin ikustea. 30 bat kiloko karga eraman dute zazpi bat egunetan. Gu motxila txiki batzuekin gindoazen eta nekatuta iristen ginen gora. Gainera ez dira behar moduan elikatzen, ortozik ibiltzen dira eta lo ere edozein lekutan egiten dute. Azken finean diru puxkat emanez laguntzen diezu.

“Espedizioko beste bat gehiago moduan joan naiz, eta ez lan konkretu bat egitera komunikabideek hala ulertzera eman badute ere”

• Osasunaz zela ibili zara?

Ez naiz osasunez oso ondo ibili. Gauetan arnasa hartzeko larri ibili naiz, batzutan oxigeno barik geldi-

tzen nintzela iruditzen zitzaidan. Ez dakit ze gertatu zaidan, beharbada hasiera batetik ondo aklimatatu ez izatea da arazoa.

• Beldurrik pasatu duzu?

Beldurra edo... Lhotserako bigarren kanpamendura bidean edur jauzi batek harrapatu gintuen. Juanito Oiartzabal eta beste lau serpa gindoazen. Haize zakarra zen eta berakin izotz zatiak e.a. zekartzan. Momentu hartan beldurra pasatu nuen.

• Anekdotarik...


Bueltan, aeroportuan, eskuzko pasajea pasatzerakoan, militar batzuk zeuden bertan. Maletak begiratu beharrean, polizia lotsabakoak dirua eskatu zigan. Guk ez genion dirurik eman eta arazo txiki batzuk izan genituen aurrera pasatzeko.

• Barriz joatea gustatuko litzazuke?

Orain bi urte K-2ra joan gine-nean barriz joateko ideiarik ez nuen ekarri. Orain barriz, barrero aukera izan ezker joango nintzateke. Baina aukera izatea ez da gero erraza. Aurtengo urtean zortea izan dut. Lehengusuek joateko aukera eman didate eta lanean ere oso ondo portatu dira.



Aitzolen errezeta



Aitzol Madinabeitiak "Txokolatezko gaileten" errezeta bidali digu. Aitzolek 8 urte ditu eta Almenen 3. mailan dago. Mendiolako Mitxeitxu baserrikoa da eta sarritan egiten ditu gaileta hauek etxean. Itxura denez, oso gaileta goxoak irtetzen zaizkio eta egin orduko jaten dituzte. Errezetak ez dauka inongo zailtasunik eta zuek ere etxean egiteko modukoa da.

Gazteei zuzendutako txokoa da hau eta zuen lanak argitaratu gura ditugu hemen. Horregatik, zuen lanak Aretxagazetara bidali ezkeru pozik hartuko ditugu eta atal honetan ipini.

Animatu zaitzete beraz, marrazkirik, bertsoz, komikirik, errezetarik, edo interesgarria den beste zeozer baduzue bidali guri.

Gura izan ezkeru kultur etxera ekar ditzaitezue edo eta kartaz ondorengo helbidera bialdu: 151 postakutxatilara, Aretxabaleta.

Ez ahaztu zuen izen-abizenak, adina, maila, ikastetxea eta telefonoa jartzea.

TXOKOLATEZKO GAILETAK

OSAGAIAK

- 60g gurin
- 60g azukre
- Arrollatza bot
- 90g irin
- 60g txokolate beltz

NOLA EGIN

Labea nixtu eta 180 gradura iritsi arte berotu. Gurin biguna eta azukrea ontzi batean ondo nahastu krema botu arte.

Beste ontzi batean arrollatza purkatu eta irabiatu. Lehengo kreman arrollatza poliki-poliki nahastu jirinari gatz pittin bat botu eta zurleko goibareaz kremarekin nahastu.

Txokolatea txikituz orain artekoari gehitu eta buelta pasatu bat eman ondo nahar dadin. Labeko plaka gurinez igurtzi. Goibareko batez bi zatitxoak horitu eta plakan jaurri botatik bestera nahiko tarte utziz.

Plaka labean sartu, 10-12 minutu edukitu ondoren atera eta hozten utzi.

Gazteendako liburu barriak liburutegian:

- El amigo Malaspina / Andreu Martin
- Aladin / Patxi Zubizarretaren edizioa

Datorren astetik aurrera liburu barri gehiago izango dira liburutegian.

Hortz klinika
Imanol Arrazola
Otxoa
 Mediku-Odontologoa
 Col. 405

Otalora 18 - 1.º D
 20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
 Tf: 79 93 55

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
 Tfnoa: 77 11 75
 ARETXABALETA

"HERRASTI" AKEITA

CAFES
la Brasileira

Aralar kalea, 7
 Tfnoa: 79 32 83

Artano Taberna

Herriko Enparantza
 ARETXABALETA

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
 Tfnoa: 79 02 24
 ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
 Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
 Tfnoa: 79 16 10

MARI-MERKE

Ikastolako materiala
 eta lorak

Lezama Merkatal Zentrua
 ARETXABALETA

TXIKI-BAR

AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



Argazkiaren jabea: Oroko Iturralde Baserria

Pedrok arineketari. Batzuren esanetan Damaso Uribe Kortazarrek jarraitu zion "referee" bezala, beste batzuk diote Aitzgorriko bidean zenbait zaintzaile zeudela apustuaren gardentasuna zihurtatzeko.

Ordu batetarako oso gutxi falta zela, lekukoek gomutan daukate nola sartu zen "Gorriña" Basabe kantoitik eta jendearen ulu, txilixo eta biba artean egin ondoren azkenengo metroen takarraria, aldabia hiru bider jo zuela irabazlearen seinale.

Benetako epopeietan lez, hemen ere suspense eta anekdotarik ez zen falta izan:

Momentu latzak pasatu zituen honuntzkotan. Diotenez, arazo muskular batzuk eduki zituen gure atletak, baina inoren laguntza ez jasotearren, hori baitzen desafioaren baldintza bat, berak bere bernei emun behar izan zien igurtzi batzuk masaia antzera.

Mekojota zegoela, ez dago adostasunik Matikuan edo Leizabaleko Baserrian, salda bero bat hartu ei zuen. Eta hor nun, garrantzi gutxi eduki leiken anekdota batek, sekulako jardunak sortu zituen orduko egunetan: ea nork gertatu eta berotu zuen salda dontzua, "Gorriak" berak, edo beste pertsona baten partaidetza egon ete zen.

Baina inork ez zuena zalantzan jarri zera da: Aitzgorriko fan eta etorria zazpi ordu baino gutxiagotan egin zuela. Ohore gure korrikalariarentzat!

Ezetz inork osteria egin!

Noizpait atxabaltar kirolari haundien galeria egitekotan, erretratu istoriko hau ezinbestekoa izango litzake.

Bertan, Pedro Aranbarri, bere base-riarengaitik "Gorriña" gatxizenaz ezaguna, agertzen zaigu, Akiles Grekoa bera harrituta utziko zuena egindakoa egin eta gero.

Laburtuta hona hemen gertatutakoa:

1931ko udabarri aldera, zek sortuta nahiko ilunpetan gelditzen dela, desafio ikaragarri bat plazaratu zen, bailara osoan ikusmin haundia sortuz:

Aitzgorriko fan eta etorria, inoren laguntza barik, zazpi ordu baino gutxiagotan egitea. Hauxe izan zen Pedrok bota, eta irabazi zuen apustua.

Geratutako egunaren goizeko seiretan, argazkian ikusi daitekeen kontzejupe zaharraren aldabia jo eta ekin zion

Julen Zuazabeitia Olabe

Ikatz minez nago



M.J. Aretxaga

Joan den astean Tasio filmea telebistan ikusi zenutenok liluraturik geldituko zineten akaso, orduko ikazkinen bizimodua ikusita. Dana dala, gertutik ikustea gura baduzue Degurixara fatea besterik ez duzue. Laukote batek txondor dotorea egin du bertan eta honeik ditugu ikazkinak: **Agustin Zugasti, Jesus Etxabe, Jose Ignazio Urkia** eta **Juan Mari Urkia**.

Ikatza baino ilunagoa izan dena, ni behintzat ez naiz orain arte ezertaz enteratu Atxabaltako eskubaloi taldearen sormena izan da. Egia esan talde gehiena kanpotarrez osatuta dago baina badira taldean atxabaltar batzuk ere, **Felipe Hernandez, Imanol Carmona** eta **Eneko Arrieta**. Azken hau Arrasateko taldera pasatu zaigu eta orduan hemendik aurrera bi atxabaltar bakarrik izango dira taldean.

Kirolarekin jarraituz, domeka goizean J.R.

Arana Memoriala ospatu zen gure herrian. Atxabaltarrok, lasterketa kontuan azkenak ez garela erakutsi genuen. Senior mailan **Ramon Jausoro** 6. sartu zen eta kadete mailan **Igor Dublan** lehenengo. Atxabaltako beste gizonezko batzuk be ikusi genituen takarraran, **Pedro Azkargorta, Jesus Lombide, Luelmo, Jose Mari Guridi** eta **Aitor Atxa**. Deskuidoan norbait ahaztu badut barkatu. Eta hauek ondo izerditu eta gero **Jose Antonio Elortondori** tokatu zitzaion zozketatu zen marisko lotea. Marisko fresko freskoa, bazkari ederra egiteko modukoa. Baina lastima emakume atxabaltarrok lasterketan parte hartu ez izatea. Hurrengoan neu hasi behar naiz fraka motzak jantzi eta takarraran.

Aurreko alean, atxabaltarrok telebistarako joera haundia genuela aipatzen nuen eta oraingo honetan be dinamika berdinarekin jarraitu dugu. Azken egunotan, ETBko bi kateak **lñurrategi anaiek** guztiz bete dituzte.

Dana dala, nire ustez, hauek baino gustorago, Atxabaltako kirolari olinpikoa bihurtu daitekeen **Joseba Larrinaga** egon zen, Ane Igarteburuk entrebistatzen zuen bitartean. Patxi Alonsori askoz ere kasu gutxiago egiten zion. Zergaitik ete zen?

Hurrengorarte eta kontuz zoro haizeaz.

A R E T X A Z O K A

LANA

- 1.go mailatik 8. mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. 79 24 19
- 20 eta 33 urtetako bi neska, umeak edo hiru-garren adinekoak zaintzeko prest daude. Telefonoa 79 96 24 da eta Txaro edo Begoñagatik galdetu.
- Klase partikularrak emango nituzke, 2. REMerarte. Telefonoa: 79 27 14.

ETXEBIZITZA


- Bergaran 50 m²-ko etxebizitza salgai. Berritua eta oso prezio interesgarrian. Telefonoa 71 53 49. Deitu gaueko 8etatik 10etara bitartean.
 - 82 m²-ko lokala salgai dago. Hiru horma kale-runtza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10 kalean dago. Telefonoa: 79 01 17
- Gasteizen, unibertsitatetik gertu, bi ikaslerendako pentsio osoa eskaintzen da. Deitu (945) 26 73 28 telefonora. (Patxi).

- Aretxabaletako edo inguruko herri batetan logela indibidual baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko baimenarekin. Deitu 35 13 28 edo 51 78 44 telefonora eta Jabierren-gatik galdetu.
- Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta altzariz hornitua dago. Gaez deitu ondorengo telefonora: 71 40 47.

Orrialde hone-tako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak e.a.) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.


Rafa Etxabe

“Euskal Herriko mendirik politena Degurixa da”



Erdi atxabaltarra eta erdi arrasatearra dugu Rafa Etxabe. Muxibar baserrian bizi da, berak esaten duen moduan “Republika independentea” ei da. Bere lana etxetik gertu egiten du, Ford Mugarriko kotxe sal-tzailea da eta.

- **Noiztik Ford Mugarri lanean?**
1979. urtetik. 16 urte daramatzat bertan lanean.
- **Eta zelan hasi zinen bertan lanean?**
Kasualitatea izan zen. Orduan FAGORren nongoen lanean eta FORdekoak etorri ziren eta lan oferta bat egin ziguten eta ordutik hasi nintzen hemen lanean.
- **Zein da zure lana Ford Mugarri?**
Komertziala naiz.
- **Ze aholku emango zenioke kotxea erosi gura duen bati?**
Gaur egun kotxe gehienak onak dira. Lehenengo kotxea gustatu egin behar da. Gero erosi behar duzun etxeak eta bertako langileak, konfiantza eman behar dizute.
- **Zein da Forden urten duen azken kotxea?**
Mondeoa. Honez gain “todoterrenoa” dago :Maveric.
- **Zure afizioak...**
Bizikleta, mendia, edurra eta itxuran ematen ez badu ere artzai lana gustatzen zait.
- **Nondik nora gustatzen zaizu artzai lana?**
Nire aita artzaia da. 18 urte inguru arte artzai lana dexente egina dut. Orain ere joaten naiz Degurixara eta ardiekin ibili. Gustoko lana dut.
- **Egin duzun bidaia luzeena...**
Munduan asko ibilitakoa naiz. Bidaia luzeenak, Hawai eta Seycheilles irletara egindakoak izango lirateke.
- **Zein leku gustatu zaizu gehien?**
Niri gehien gustatu zaidana Amerika mendebaldea izan da, hau da California aldea, Oregon, e.a.. Bertako pasaia asko gustatu zait.
- **Bizikletaz asko ibiltzen zara, hemen inguruan zein errekorrido polit egin daiteke?**
Gatza igo, Legutianora joan eta gero Aramaixora. Baina beste asko dago.
- **Gaztetan juerga asko ala gutxi eginikoa?**
Erregular.
- **Bazkalostean siestarik?**
Ez.
- **Eskiatzea ere asko gustatzen zaizu, nora joaten zara normalean?**
Normalean Pirineotara eta ahal badut Bakeirara. Toki askotan egon naiz eskietan, Alpeetan, Frantziako pirineotan eta azken hauxek dira estazio onenak.



Amaia Zugazagasti
dugu aurreko alean saritu suertatu zena..

Zorionak!!!

Oraingo honetan beheko galdera ondo erantzun eta saritu suertatzen denak, Urkiola argazki dendan norberak gura duen argazkia haundituko diote, marko eta guzti. Beraz, aukera ona duzu edozein argazki neurri haunditan markoan jartzeko. Kontutan izan bazkideek bakarrik dutela lehiaketa honetan parte hartzeko aukera. Ea ba, animatu eta bidali aguro erantzuna.

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

Zenbat lora polinizatu ditzake erla batek ordu batean?

*Aurreko aleko erantzuna “Eider Otxoa” zen.



Erantzuna:

.....

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Urriak 28

KONTZERTUA

Pablo Sorozabal boskotearen kontzertua Mariaren Lagundiko elizan arratsaldeko 8etan.

Urriak 30 astelehena

ARTEARI BURUZKO BIDEO EMANALDIA

Kultur etxean izango da arratsaldeko 7etan.

Urriak 27 azaroak 19


ERAKUSKETA

“Ondarea berreskuratzen” 1992-95. Kultur etxean egongo da ikusgai.

Autobiografia ikastaroa

Bergarako UNEDeko Euskal Departamentuak autobiografiari buruzko ikastaroa antolatu du. Klaseak larunbat goizetan izango dira eta informazio gehiago gura izan ezkerodeitu 76 13 42-3 telefonora.

ARRASATE



Urriak 20-31

GAZTEOK BIZIKLETAZ VI. ARGAZKI LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

Monterron Kultur etxean egongo da ikusgai, urriaren 31ra arte.

Urriak 28 zapatua

ANTZERKIA

Gaeko 10,30etan Amaia Antzokian **GEROA** antzerki taldearen “**POR MIS MUERTOS**” antzezlan.

Argazkigintza ikastaroa

Azaroaren 9an ekinda hasierako argazkigintza ikastaroa izango da, ASA argazkilari taldeak antolatuta. ASA elkartearen lokalean emango da martizen eta eguaztenetan. Guztira 20 ordu izango dira, eta arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean emango dira. Prezioa 3000 pezetakoa da langileentzat eta langabetu eta ikasleentzat barriz 1.500 pezetakoa.

Ikastaroa

Geriatría hirugarren adinean trebatzea. Izen emateko epea urriaren 16tik 27ra da Arrasateko Santa Teresa kalean.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

Dorleta
Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat


Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

ZARAIA
TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozategia
Panaderia - Pasteleria*



Aretxabaleta

Mitard. 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Crader Propio

MENDIOLA
ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

ARETXABALETA



BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltea 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otorora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkartea 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkartea 79 33 99
- SOS Deiak 088

Azaroak 9 eguna

JOSE M^a ARIZMENDIARRIETA X. LEHIAKETA

Lehiaketara aurkezteko azken eguna azaroaren 9a da. Informazio gehiago 79 31 32 telefonoan.

Azaroak 10 eguakotxa

TXINAKO KONFERENTZIAN BERBA EGIN ZENARI BURUZKO HITZALDIA TRIL emakume taldeak Txinan

Emakumeari buruzko konferentzia berba egin zenari buruzko hitzaldia antolatu du. Hitzaldia arratsaldeko 7,30etan izango da Loramendi Elkartearen lokalean.

Azaroak 12 domeka

ZARAIA MENDI TALDEA

Zaraia M. T. **GAZTELUAITZ**era egingo du urteera

Azaroak 18 zapatua

KINTO AFARIA

74. urtean jaioetako kintoek afaria egingo dute azaroaren 18an. Arlutzen Apuntatu behar da azaroaren 14a baino lehen. Aldez aurretik 1000 pezeta jarri beharko da.

Txikiendako dantzako inskripzioak egiteko epea zabalik dago. Musika eskolara jo behar da. Umeen dantza klaseak martizenetan izango dira 5etatik 6etara.

Urriak 27 eguakotxa

NATURISMOARI BURUZKO HITZALDIA

Tril emakume taldeak naturismoari buruzko hitzaldia antolatu du. Urriaren 27an emango arratsaldeko 7,30etan Loramendiko lokalean. Hizlaria, Joseba Bidaurrasaga sendagilea izango da.

Urriak 28 zapatua

JUBENILAK OHOREZKO LIGA -BETI ONA

Zapatuan izango da arratsaldeko 3,30etan Ibarra futbol zelaian.

Lgo ERREGIONALA- PASAJES

Zapatuan izango da arratsaldeko 5,30etan Ibarra futbol zelaian.

Urriak 29 domeka

ZARAIA MENDI TALDEA

Zaraia M. T. **OTEROS**era egingo du urteera

U.D.A.ko NESKAK-LIZARDI

Domekan jokatuko da 11,30etan Ibarra futbol zelaian.

U.D.A.- ORIOKO

Domekan izango da arratsaldeko 4,30etan Ibarra futbol zelaian.

Azaroak 1 eguaztena

DOMU SANTU EGUNA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28

ARETXABALETA

ITURGINTZA


J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87


IÑURRATEGI ANAIAK eta MUGARRI, ezinezkoa erraza egiteko gaitasuna



K-2 (94-06-24)



Cho Oyu (95-09-11)



Lhotse (95-09-27)



Gaur egun, mendizaleen artean Iñurrategi anaiak ditugu errege. Baina Todoterrenoetan errege dena Ford-en Maverick berria da. Bere indarra edozein gailur gainditzeko gai da eta bidean edozein autok bezala erantzuten du.

Iñurrategi anaiak, natura menperatzeko jaioak!

IÑ MUGARRI